

Kultura

Bihar, Zornotzan, eskainiko duten 'Letter' antzezlanaz,
Aritza Rodriguez aktore zaldibartarragaz elkarrizketa > 11



Eskola-jantokietan, bertakoa eta sasoikoa

Durangaldeko zazpi eskola publikotako gurasoek indarrak batu dituzte, jantoki eredua aldatzea eskatzeko. Bertako eta sasoiko produktuak gura dituzte umeen plateretan, eskoletako sukaldeetan bertan prestatuta. Horrelako proiektu batek eskualdeko ekonomian eta nekazaritzan edukiko lukeen eragina ere nabarmendu dute. > 3





11. AUKERA AZOKA

MARTXOAK 18, 19, 20
DURANGO 2016 - LANDAKO GUNEA

ORDUTEGIA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
	10:00-14:00	10:00-14:00	11:00-14:00
	17:00-21:00	17:00-21:00	17:00-19:00



Durangaldea > 2

Berdintasunaren aldarria hartu dute Durangaldean

Durango > 4

Ibilaldirako motorrak berotzeko bideoklipa aurkeztu dute

Elorrio > 6

Txosnak lekuz aldatu arren, bizilagunak ez daude gustura

Otxandio > 8

Bagaizan talde feminista sortu dute, Otxandion

Herririk herri

Martxoaren 8ko eguna, emakumeentzako aterpe

Feministek eta hainbat eragilek emakumeek bizi duten egoera kaleratu dute



Durango, euripean egin zuten manifestazioa ehunka lagunek.

DURANGALDEA J.D./M.O. Martitzenean, ehunka herritar irten ziren kalera, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Eraso eta diskriminazioen aurrean, emakumeentzako aterpe izan zen, beste behin ere, martxoaren 8a. Durango, esaterako, ehunka lagun batu ziren Plataforma Feministak deitutako manifestazioan, *Feministok Forman* lemapean.

Hainbat udalek adierazpenak landu dituzte gaia aintzat hartuta. Durango, Europara

sartzeko saiakeran dabilzan emakume eta ume errefuxiatuak hartu dituzte gogoan. Amnistia Internazionalaren datuak aipatuz, udalak salatu du emakume errefuxiatuek eraso fisiko zein sexualak eta esplotazioa pairatu izan dituztela Europara eginiko bidaian zehar.

ELA sindikatuak bidalitako gutunean, emakumeek lan munduan bizi duten desberdintasunaz ohartarazi du: “Ez da berdina emakumea izatea lan merkatuan, ezta lan merkatutik

kanpo ere. Emakumeek egindako lanek gutxiago balio dute, bai ekonomikoki bai sozialki”.

Ernai gazte erakundeak egoera iraultzeko deia egin du, ohar baten bidez. “Gazte garenetik, hezkuntza sistemak lan erreproduktiboetara bideratzen gaitu”. Lanetik kanpo ere, antzerakoa omen da egoera: “Lagun artean zein militantzian, zaintzaileak izatera behartuta egoten gara, ezkutuko lan honek dakarren balorazio urriagaz edo gutxiespenagaz”.

‘Domeka internazionalistak’ berbaldi zikloa, martxan

Brigaden berri emango du Askapena erakundeak

DURANGALDEA I.E. / M.O. Munduko hainbat txokotako errealitateen eta aurtengo Brigada Internazionalisten berri emateko, *Domeka internazionalistak* berbaldi zikloa antolatu

du Askapena erakundeak. Etzi izango da lehenengo berbaldia, eta, domekaz domeka, maiatzaren 8an amaituko dute.

Durango Sapuetekek hartuko du lehenengo berbaldia,

etzi, 19:00etan. Herri zapatista eta maputxeen inguruan jardungo dute. Martxoaren 20an Abadiñoko gaztetxean egongo dira (Kurdistan buruz); apirilaren 3an Zaldibarko liburutegi zaharrean (Sahara); apirilaren 10ean Atxondoko Barraskiloren (Argentina); apirilaren 17an Durangoko Sorginolan (Herrialde Katalanak); apirilaren 24an Zornotzako Ziztada gunean (Sardinia); eta maiatzaren 8an Elorrioko Gaztetxean (Venezuela).

“Gizarte langileak lanez gainezka daude”

Gizarte langile bat hartuko du Amankomunazgoak

DURANGALDEA M.O.

EH Bilduk eta Herriaren Esku-bideak zuzentzen duten Amankomunazgoa bere lehen aurrekontua lantzen hasi da. Zirriborroa batzordeetan landuko dute, eta apirilean onartzea espero dute. “Gizarte zerbitzuak lehen-tasuna” direla uste dute.

Lau neurri nagusiren berri eman dute. Lehen, langile bat gehiago kontratatzea gizarte zerbitzuetarako. Aitor Lopez presidenteak (EHB) eta Julia Pereira Ongizateko batzordeburuak (HE) kontatu dute azken urteetan gora egin dutela gizarte zerbitzuetan herritarrek egindako eskariek, 2008tik hona, batez ere. Ondorioz, lan karga ere handitu da. “Gure gizarte langileak lanez gainezka daude”, esan du Pereirak. Uneotan bederatzi gizarte langile daude, beste administrari bigaz batera.

Neguko aterpea indartzeko Amankomunazgoko administrazioan ere pertsonal gehiago behar dela diote, eta administrari bat hartuko dute.

Etxebakoentzako neguko aterpetxearen zerbitzua indartzea da hirugarren neurria. Orduetia zabaltzea, eta pertsonala handituko dute. Gainera, aurreratu dute 2017an urte osoan zabalik egon beharko dela aterpea, legeak eskatzen duelako. Beraz, horretara egokitzen hasi gura dute.

Zabor bilketa zuzentzeko Laugarren ekintza esanguratsu lez, zabor bilketa zerbitzua sendotzea gura dute. Lanbide eskola zuzentzen zuten –orain Durangoko Udalaren esku dago– Behargintzako bi teknikaririk zabor bilketaren koordinazio lana burutuko dute.

Aldaketak egin arren, aurrekontua %10 baxuagoa litzateke.

Kontatu dute gora egin dutela gizarte zerbitzuetan herritarrek egindako eskariek



Lopez eta Pereira erdian, Eider Uribe eta Endika Jaio alboan dituztela.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko martxoaren 11a
14. urtea - 624. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





“Umeen eskubidea da ganorazko elikadura bat edukitzea”

Guraso elkarteek jantoki eredua aldatzeko manifestu bat landu, eta babes bila hasi dira

DURANGALDEA M.Onaindia

Jaten duguna ei gara, eta kontzientzia hori gero eta gehiago zabaltzen dabil gizartean. Hori gertatzen da Durangaldeko hainbat gurasogaz ere; euren umeek eskolako jantokietan jaten dutenagaz kezkatuta daude. Ikasleen plateretako jakiak bertakoak, sasoikoak eta eskolako jantokian prestatutakoak izatea gura dute, katerin enpresa batek egindakoa izan beharrean. Durangoko Kurutziaga ikastolan, esaterako, bertako produktuak sartzen hasi dira errezetetan. Kezka hori Jaurilaritzaren menpe dauden eskoletako jantokietan ere gorpuzten joan da, eta orain, Durangaldeko zazpi ikastetxetako guraso elkarteek indarrak batzea erabaki dute. Durangoko Landako eta Zabalarra, Abadiñoko eskola biak, Atxondokoa, Elorriokoa eta Iurretako Maiztegi eskolako gurasoak dira. Manifestu bat landu dute euren aldarrikapenekin, eta asteon zabaltzen hasi dira.

“Umeen eskubidea da ganorazko elikadura bat edukitzea”, adierazi du Alex Azpiri atxondarrik, nazioarteko adierazpen bat oinarri hartuta. Uneotan, zazpi eskola horiek batuta, 2.000 ikaslek baino gehiagok jaten dute jantokietan. Eskolaz eskola, egoera desberdina da. Katerin enpresak jatekoa eginda ekartzen du ikastetxe batzuetara, eta bertan, berotu egiten dute; beste

2.000

ikasle baino gehiagok jaten dute bertako jantokietan

7

guraso elkarte indarrak batzea erabaki dute

hainbatera, produktuak ekarri, eta bertan prestatzen dute; bada go sukaldarik ere ez daukan eskolarik. Atxondokoak, adibidez.

Gurasoen kezka

Zelaietako eskolan badaude sukaldariak, baina produktuengatik dute kezka. Elixabete Agirre: “Produktuak nondik datoz? Zer distantzia egiten dute? Mantendu al dute tenperatura? Sukaldariak, sarri, produktuak atzera bota dituztela ere badakigu”. Kezka horretaz galdezka jarraitu du Azpirik: “Zelan erein da produktua? Zer ongarrigaz? Zer pestizidagaz babestu da?”. Atxarte Agirre abadiñarrak dio soluzioa eskolaz eskola topatu

beharko dela, baina oinarri batetik: “Produktu gehienak bertakoak izatea nahi dugu”.

Iurretan ere jasotzen dute lehengaia enpresatik, eta bertan prestatzen dute. Orain lau urte hasi ziren guraso batzuk gaia lantzen, Egoitz Ortiz de Zaratek dioenez: “Kudeaketa gurasoek egitea zen gure helburua. Baina oso gaitza dela ikusi genuen; enpresa egitura bat behar duzu, eta ez genuen gure burua kapaz ikusten”.

Iñaki Larrañaga iurretarrak dio gaiak hainbat gurasoren interesa piztu duela, hein batean gai zaila izan arren: “Jendeak aldaketen aurrean beldurra edukitzen du. Baina guraso batzuk galdezka etortzen dira”. Aldaketak antolaketan ere eragingo luke, baina Ortiz de Zaratek esan du orain lanean dauden sukaldari eta begiraleen lanpostuak bermatzea oinarritzkoa dela, euren ustez.

Noren ardura da?

Azpirik dio gurasoek aldarrikapena egingo dutela, baina jantoki eredua aldatzeko ardurak Eusko Jaurilaritzarena dela: “Ez dugu planteatzen gure gain hartzea, gu hastea erosketak egiten eta abar. Ez da gure *motxila*”.

Elixabete Agirre:

“Sukaldariak, sarri, produktuak atzera bota dituztela ere badakigu”

Ardura daukanak egin beharko du posible izatea”. Jaurilaritzaz gainera, eskualdeko udalek, Amankomunazgoak eta landa garapeneko elkarteak ere zer esana izan ahal dutela uste du Azpirik.

Inguruko ekoizleekin

Eta zelan garatu ahal da alternatiba?: “Inguruko ekoizleekin garatzea idealena izango litzateke. Gainera, diru asko geratuko litzateke bertan”, dio Ortiz de Zaratek. Beraz, nekazaritza bultzatuko luke. Uneotan, Jaurilaritzak enpresa gutxi batzuen esku uzten du zerbitzua, eta zigorra

MANIFESTUAREN OINARRIAK

1. **Elikadura osasuntsu** bat jasotzeko eskubidea daukate umeek.
2. **Kalitatean** ere egokia izan behar da elikadura, kantitatean bezala.
3. **Bertako eta sasoiko produktuak** umeen beharrezanetara hobeto egokitzen dira.
4. **Sukaldean bertan** prestatutako produktuak bakarrik mantentzen dituzte osagai guztiak.

GAINERA...

Proiektuak inguruan lanpostuak sortuko dituela eta bertako ekonomia indartuko duela uste dute. Baserrien biziraupena bermatu ahal duela diote, eta garraioa murriztuz, gutxiago kutsatuko dela ere bai.

ezarri berri die, prezioak ados-teagatik. “Umeen elikadura negozio bihurtzen denean, arazo bat dugu”, esan du Azpirik.

Hurrengo asteetan eskualdeko eragileen atxikimendua eskatuko dute, eta beste ikastetxeak ere gonbidatu dituzte elkarlanea. Ekainean jaialdi bat egingo dute, indar erakustaldi modura.



FJI - MOTOR
www.fji-motor.com
comercial@fji-motor.com · Tel.: 637 500 960



MERCEDES E250 CDI COUPE, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN
 2011ko martxoa. 86.400 km. Full ekipamendua. Memoriadun jesarlekuak, avantgarde automatikoa, sport jesarlekuak, elektrikoak, beroa handitzekoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz eta atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, egonkortasun kontrola (ESP), abiadura kontrola, Xenon argiak, aleaziozko haguak, pintura metalizatua, besoa pausatzekoa aurrealdean, kanpoko atzerako ispilua elektrikoak, satelite bidezko nabigazio sistema, larruzko tapizeria grisa, larruzko bolante multifuntzionala. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. **29.999€**



BMW 525D, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN
 2010eko urria. 78.366 km. Full ekipamendua. CD. MP3. Ordenagailua. Bluetooth. Ispilu elektrikoak, beroa handitzekoak eta eraigarriak. Xenon, laino-argiak, jesarleku elektrikoak, sabai elektrikoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz aparkatzeko distantzia kontrola, atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, abiadura kontrola (ESP), satelite bidezko nabigazio sistema. Larruzko tapizeria beixa, sabai altxagarri/korrigarria kristal elektrikoduna, larruzko bolante multifuntzionala, udarako pneumatiko-jokoa, neguko pneumatiko jokoa. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. **27.499€**

Ibilgailu berri baten bila bazabiltza, edo erabilitakoa, historikoa, bildumazkoa edo amerikarra, jarri gurekin harremanetan, esaiguzu zein den zure nahia edo beharra eta zure aurrekontua, eta guk aukerarik onenak bilatuko ditugu mundu osoan, gero zuk zuretzat egokiena aukeratu dezazun. Auto guztiek R.A.C.E.-ren berme ziurtagiria dute.

Ibilaldiaren abestia, ikasle, irakasle eta gurasoen eskutik

‘Dagigun!’ le mari jarraituta, abestiagaz ekintzarako gogo hedatu gura dute



Kurutziaga ikastolan, guraso eta ikasle guztien aurrean egin zuten aurkezpena, atzo.

DURANGO Markel Onaindia Aurtengo Ibilaldiak badauka abestia. Atzo aurkeztu zuten, bi kolpetan; Bilbon prentsari, batetik, eta Kurutziagan, bestetik. Bertan, abestiaren eta bideokliparen aurkezpen masiboa egin zuten, guraso guztien aurrean. *Dagigun!* da Ibilaldirako lema, ekintzarako deialdia dakarrena barnean. Horregatik, kanta eta bideoa ere elkarlanean landu dituzte: ikasle, irakasle eta gurasoen eskutik dator. Ekintzarako gogo kutsatu gura dute.

Eurek sortu dituzte letra, musika, eta dantza. Letra Igor Elortza bertsolariak egin du,

Atzo aurkeztu zuten, bi kolpetan; Bilbon prentsari, batetik, eta Kurutziagan, bestetik

eta musika Ander Erzillak, Durangoko Bartolome Ertzilla kontserbatorioko irakasleak. Baina, izen ezagunez aparte, hainbat ikasle ikusi eta entzun ahal dira kantuan. Dantzan zer esanik ez. Jende ugari parte hartu du koreografian. Bideo-kliparen hasieran, ikastolaren sortzaileetako bat agertzen da.

Grabaketa Baleuko ekoiztetxeagaz egin dute, azaldu dutenez.

Maiatzaren 29an

Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolak antolatzen dabilzan Ibilaldia maiatzaren 29an ospatuko da, eta laster emango dute egitarauaren berri. Bidean, Durangaldea euskalduntzeko prest dauden guztiei elkarlanerako gonbita egin gura diete. Gainera, ikastolen balioak eta nortasuna zabaldu nahi dituzte. “Bere garaian guraso eta irakasle batzuek *dagigun!* esaten zutelako dira, gaur, ikastolak erreallitate bat”, esan dute oharrean.

EH Bildu: “Durangoko Udala bunker burokratiko bat da”

EH Bilduk salatu du ez dutela dokumenturik jaso, epaileak arrazoia eman arren

DURANGO M.O.

EH Bilduk partaidetzaren inguruko ordenantza bat landu du elkarte eta herritarrekin bate-

ra, eta, atzo, udaletxean erregistratu zuen, udal ordezkarien eztabaidara sartu ahal izateko. Baina, udal gobernuari kritika

ere egin dio koalizioak; azaldu dute oraindik ez dituztela jaso eskatutako dokumentuak, epaitegiak arrazoia eman arren. “Durangoko Udala bunker burokratiko bat da”, esan dute.

Iker Urkiza zinegotziaren izenean, hamalau dokumentu eskatu zituzten, batez ere egoera ekonomikoari lotutakoak. Ez zituzten jaso, eta auzitegira jo zuten. “Udaleko alderdi politiko batek informazio eske auzitegietara jo behar izateak modu argian erakusten digu zer nolako arazoak izaten dituen herritar batek udaletxera informazio eske edo kexa bat jartzera hurbiltzen denean”. “Udaleko ateak zabaltea” eskatu dute.



EH Bilduko Aritz Bravo eta Eider Uribe, ordenantza erregistratzen.

Askondoko kobako pintura eta grabatuak, denon bistara

MAÑARIA M.O.

2010ean Bizkaiko aro paleolitikoaren inguruan egindako ikerketa baten baitan, Askondoko koban ibili ziren arkeologoak, eta, ezustean, margoak topatu zituzten. Horrela, margoak aztertzea eta zundaketa arkeologikoa egitea erabaki zuten. Guztira, dozena bat irudi ikusi zituzten; tartean, hamar zaldi gorri. Guztiak kobaren sarreran. Duela 25.000 urte eginikoak zirela ondorioztatu zuten, eta horregatik, koba oso garrantzitsua zela esan zuten ikerlariek. Bada, kobazuloa digitalizatu egin dute, eta denbora batera ikusgai egongo da.

Izan ere, Aldundiak herrialdeko zortzi koba digitalizatzea erabaki du. Mañarian egin dute eskaneatzeko lana, eta orain, hiru dimentsiotan erreproduzitzeko prestatuko dute.

Landa Garapen Programa aurkeztuko dute, Garain

GARAI M. O.

Eskualdeko gizarte eta ekonomia mailako elkarteekin batera, hausnarketa prozesu batean murgilduta egon da, azken hileetan, Urkiola Landa Garapenerako Alkartea. Horren helburua, Durangaldeko Landa Garapen Programa berria egitea izan da, eta, datorren egunean, martxoaren 11n, horren aurkezpena egingo dute, Garain. 16:00etan izango da, kultur etxean.

Baserri eremuaren gestio iraunkorra burutzea eta bertako biztanleriarentzat “etorkizun duina” bermatzea dira programa berriaren helburu nagusiak.

Eskolaren berokuntza sistema hobetzen

ZALDIBAR I.E.

Termostatudun berogailuak ipini dituzte hiru eta bost urtekoen eskolako eraikinean, eta leihoak eta pertsianak aldatu beheko solairuan. Herri eskolako berokuntza sistema hobetzea eta energia hobeto kudeatzea — gu-

Jubilatuen elkarteak urteko batzarra egingo du, hilaren 19an

IZURTZA Joseba Derteano

Urtero lez, Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak urteko batzarra egingo du martxoaren 19an, San Jose egunean. 11:00etako mezaren ostean batuko dira herriguneko plaza-

ren ondoan duten lokalean. Besteak beste, diru kontuen balantzea azalduko dute. 100 bat euroko balantze positiboarekin amaitu dute urtea, Karmelo Irastorza elkarteak lehendakariaren esanetan. Beraz, sarrera-gastuak orekan dituzte. Bi urterik behin, sei laguneko zuzendaritza batzordea berritzen dute, eta aurtengo egokitzen da. Orain urte bi, ez zen lehendakari kargurako hautagairik aurkeztu, eta Irastorzak jarraitu zuen. Aurtengo ere, inor aurkeztuko ez balitz, Irastorzak dio karguan jarraitzeko prest dagoela. Batzar ostean luntxa egongo da.

‘Limoneroak’ filmari buruzko solasaldia, kopau eta guzti

MALLABIA P. Bustindui

Gaur, 19:00tan, Kontzejuzarran, “Los Limoneros” filmaren inguruko solasaldia egingo da, Mallabian. Herriko Nahikari Elkarteak martxoaren 8rako prestatutako ekimenetako bat da.

Benetako gertakizun batean dago oinarrituta filmeko istorioa. Bertan, Salma alargunak Israelgo defentsa ministroa izango du etxekide berri modura, eta hau Salmaren limoi arbola suntsitzen saiatuko da. Salmak, ordea, arbola salbatu nahiko du. Solasaldian, patata tortilla eskainiko zaie bertaraten diren parte-hartzaile guztiei.

txiako kutsatu eta gastatzea— dira lan horien helburuak. Gobernu taldeak azaldu duenez, 39.000 euroko aurrekontuagaz burutu dituzte lanok (Jaur-laritzak inbertsioaren %60ko diru-laguntza eskaini dio Zaldibarko Udalarari).

Azken urteotan, eskolako eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko hainbat lan egin dituztela gogora ekarri du gobernu taldeak, eta horien osagarri direla azken hauek.

Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke,
eta gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

DESKONTU BEREZIAK



A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > - %10 altzari eta osagarrietan.



BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

- > -% 5 produktu guztietan.



HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburuetako menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -% 10 Dippner oinetakoetan.
- > -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.



OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.

Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
 946 816 558

Anboto komunikabideak

@anboto

Txosnak lekuz aldatu arren, bizilagunak ez daude gustura

Bizilagunek batzarra egin dute, eta barrakak ere lekuz aldatzea eskatu dute



Idoia Buruaga alkateak eta Maite Lopez kultura zinegotziak proposamena azaldu zuten, bizilagunen batzarrean.

ELORRIO Markel Onaindia Txosna eta barraken kokalekuaren gaiari soluzio bat eman guran dabilta, baina, momentuz, udala eta bizilagunak ez dira adostasunera heldu. Nizeto Urkizu eta Buzkantz kaleko hainbat auzotarrek kexa plaza-ratu izan dute azken urteetan, eta udalak proposamen bat lantzen du aurten. Horren arabera, txosnak beste leku batera eramango dituzte, eta barrakak txosnak zeuden eremuan kokatu. Beraz, zarata gutxiago eta urrunago edukiko lukete. “Neurri horregaz bizikidetzaz lortu ahal dela uste dugu”, esan du Idoia Buruaga alkateak. Gai-

nera, ordutegia eta zarata mugatuko dutela dio gobernuak. Udalak batzorde berezi bat sortu du gaia lantzeko, eta hor, bizilagunak, txosnetakoak eta jai batzordekoak ere badaude.

Nekatuta daudela diote Baina bizilagunak ez daude proposamenagaz gustura. Martitzenean, batzar zabala egin zuten udaletxeko areto nagusian –udalaren prestutasuna eskertu dute–. Auzokideetako batek adierazi du ja nekatuta daudela: “25 urtez txosnak eta barrakak etxe aurrean edukitzea nahikoa dela uste dugu auzokideok. Jaiak denok disfrutatzeko dira.

Ez dugu zertan oporretan joan, gaez eta egunez ezin dugulako lorik egin”. Apirilaren 14rako dago deituta hurrengo batzorde berezia: “Eramango dugun proposamena txosnak eta barrakak beste leku batera eramatea izango da”. Lourdesko eskoletara, San Agustinerara edo Ibarrara lekuz aldatzea dira ideietako batzuk, baina, udalaren iritziz, herrigunetik aldentzeak jaiak kaltetuko lituzke.

Barrakak mugitzea aztertu du udalak, baina “erdigunean dagoen leku faltak zein kokaleku berriak egokitzeko gastu ekonomikoak ideia hori alboratzea eragin dute, momentuz”.

Nagusien ideia berriak sarituko ditu udalak

Ekintzailetasuna indartzeko lehiaketa antolatu dute

ELORRIO M.O.

60 urtetik gorakoen ekintzailetasuna bultzatu gura du Elorrioko Udalak, eta, horretarako, lehiaketa berezi bat ipini du martxan, Aldundiagaz elkarla-

nean. Nagusiei ideia edo ekintza berriak proposatzeko deia egin die, eta onenek sariak eskuratuko dituzte. Gainera, Bizkaiko lehiaketan parte hartzeko aukera edukiko dute.

Hainbat arlotako jarduerak proposatu ahaliko dira: kultura, ekintzailetza, autogainditea... Lehenik, proiektuak aurkeztu beharko dira, eta gero, lau hile edukiko dituzte garatzeko. Lehiaketa urrian amaituko da, sari banaketagaz batera.

Elorrioko bizi-kalitatea hobetzea gura du udalak: “Gure nagusienek asko dute erakusteko. Ezagutzaren eta esperientziaren ahotsa dira”, adierazi du Xabier Dominguez alkateordeak.



Gure Esku Dagok deitutako mobilizazio bat, artxiboko irudian.

Zerua argitzera, erabaki eskubidea babesteko

Gure Esku Dagok ekitaldia deitu du, gaurko

ELORRIO M.O.

Gure Esku Dago mugimenduak deituta, *Argitu erabakia* izeneko ekitaldia egingo da, gaur, Elorrioko plazan. Herriko zerua argitzeko asmoa dute, erabakitzeko eskubidea babesteko. Gaurko hitzorduari Kriseiluen Gaur ere deitu izan diote mugimenduko kideek. Herritar bakoitzak, beroagaz gorantz egiten duen kriseilu bat edukiko du, eta guztiak batera aireratu-

ko dituzte. 19:00etan hasiko da, eta 300 lagun batzea espero dute. Elorrioko eragile eta alderdi politikoekin batzarrak egiten ibili da, azken hileotan, Elorrioko Gure Esku Dago, eta lanketa horretatik, datozen hiru urtee-

tan herrian zer egin gura duten zehaztu dute. Plan bat eratu dute, eta, haren arabera, 2017an herri galdeketa egitea da asmoa.

Bestalde, apirilaren 23an, bozketa sinboliko bat egingo dute. Galdera zein izango den oraindik ez dakite, baina erabakitzeko eskubidea praktikan ipintzea da helburua.

Plan bat eratu dute, eta, haren arabera, 2017an herri galdeketa egitea da asmoa



Udalak egindako aurkezpenean 40 bat pertsona nagusi egon ziren.

MARTXOKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558



UR URDAIBAI.
JARDUERAK URDAIBAIEN
Urdaibaiko ibaiaren
jaitsiera Kayak /
Kanoa / Sup
7 pertsonentzat.



HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Patrick Modianoren
“Dora Bruder”
liburua eta
Esne Beltzaren
“Esna” CDa.



EROSKI.
SUKALDEKO ROBOTA
Thermogrind Pixton
1,7L. Berehalako
saltsa, zopa eta
irabiakiak.



SALTSAN KATERIN.
EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko
produktuen
dastaketa, 2
pertsonentzat.
4 egile-pintxo,
2 ardorekin
lagunduta.



**UNAMUNZAGA
HORTZ-KLINIKA.**
ESKUILA ELEKTRIKOA
Hortzetako eskuila
elektrikoa PC800
sensitive ORAL-B.



ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

BURU-AMARAUNAK

Adimena nolakoa, nortasuna halakoa. Gizakion izana gure barne-gogoeta eta adimen kalitatearen arabera da. Ondorioz, lehendabizi aztergai jarri beharko genuke gure adimen-kalitatea edo beste era batera esanda: giza adimenaren prozesuak zein neurrira arte dira ordenatuak? Gizakiaren adimena “zuzena” ote da? Garbiak ote dira gure gogoetak?

Gizakiren adimena amaraunez jantzita dagoela esan dezakegu. Sarritan euren menpe izaten gara eta ez dugu bertatik eroso ateratzeko aukera handiegirik izaten. Aipamen bezala...sentimenduak, emozioak, ohiturak, sinesmenak eta aurreiritziak ere talde horretan bildu ditzakegu. Gure gogoetak amaraun horietan korapilatzen dira. Batzuetan irtenbide urriz. Gehienetan bertan kateatu eta eroriz.

Sarritan erabat errotuta ditugun ohitura desegokiez jabetu eta borondatea eta aldatzeko beharrian gorria geure buruari behin baino gehiagotan errepikatzen diogun arren, aipatu amaraunak eta ohituren indarrak ez digute barne-asmo hori garatzen uzten. Ohituren indar erraldoia edota gizakia- ren borondate ahularen ezina. Edo biak. Sakon aztertuz gero... nahi izaten ez delako. Ahalegi- naren ezinean baino egonean hobe. Erosotasuna nahiago, hobera egiteko bide bihurriak ibili baino.

Gure borondate kontzientea gure irudimenarekin eta gure azpikontzientearen borondatearekin gatazka bizian dabil. Batzuetan txarra eginez jarduteko tentazio gaiztoak ere sakon sakonetik azaltzen dira. Zenbat eta gure ohitura desegoki edota okerrak zuzentzen gehiago aritzen garen, are eta amaraunari lotuago. Eltxoen antzera. Baina egoerak egoera, gutariko bakoitzak, amaraunak saihestu ditzake buru-jarrera baikorra azalduz. Egiten ikastea edota jakinda praktikan jarri nahi izatea da kontua.

Adimenaren zorroztasuna dugu arrakastarako zutabe nagusienetako bat, baina zehaztasunez gogoeta egiteko arazoibidea erabili behar da. Arazoibidearen edota oldozmen-zorroztasunari logika esaten diogu. Zentzunean oinarritutako ekintza arazoibidea baino zerbait gehiagoren emaitza da. Zentzumenean oinarritutako jarduna gogoeta-ohituren, ekintzaren, eskarmentuaren eta, bestalde, joera eta giroa bezala- ko eragileen arabera da.

Gure buruaren amaraune-

tako bat arrazoiak bakarrik bultzatuta jarduten dugula uste izatean datza eta ez da horrela, ekintza kontziente oro egin nahi duguna egin izatearen emaitza baita. Erabakiak hartzen ditugu eta arrazoitzen dugunean gure azpikontzientearen barne-bulkada sakonen aldeko ondorioetara iristeko joera erakusten dugu. Joera hori toki guztietan ematen da.

Kristo aurreko 31. urtean Egeo itsas ertzeko hiri txiki baten bizi izan zen filosofo ospetsu batek Kartagora bidaia egin nahi izan zuen. Logika irakaslea zenez, bidaia- hasiera emateko aldeko eta aurkako zituen arrazoi guztiak aztertzeari ekin zion.

Bidaia- ren aldeko eta aurkako zioen azterketa egiten zebilela, bidaia egitearen aldeko azaltzen zen arrazoi bakoitzagatik hainbat aurkako arrazoi azaltzen zitzaizkionaz ohartu zen. Arrazoiotariko batzuk honako hauek: ohi bezala, zorabiatzeko joera arrunta; ontziaren txikiak ekaitzik izatekotan filosofoaren bizitza arrisku garbian jarriko zuela; belaontzi arinetako piratak Tripoliko uretan merkataritza-ontziak arpilatze asmoz zelatan zeudela edota ontzia harrapatua izatekotan piratek bere ondasun guztiak kendu eta jopu gisa salduko zutela pentsatzeari ekin zion. Diskrezioak bidaia ez hastea eskatzen zion. Baina, hala eta guztiz ere, bidaia egitearen asmoa egia bihurtu zuen!!

Zergatik egin zuen bidaia? Egitea erabaki zuelako. Izatez, emozioak eta arrazoiak gizaki ororen bizitzan orekatuta egon beharko lukete. Ez luke batak bestearengan inolako nagusitasunik izan behar. Ondorioz, batzuetan ona izaten da egin nahi den ekintza egitea, arrazoiak beldur duena egin beharrean.

Erabaki egokiak hartzen ikasi egiten da baina ordurako hainbat alditan erabaki okerrak hartzea izaten da egokitzen dena, norbere hobekuntzarako horrelako ikasbideak aukera paregabe eta bikainak izaten diren arren. Egoera eta arazoak areagotu besterik ez dira egiten hartu beharreko erabakiak beste pertsona batzuekin ditugun harremanei ukitzen dienean.

Hainbatetan besteei gure arrazoiak, gure iritziak, barne-barnean ditugun aurreikuspen oker eta amaraun kaltegarriak besteei ezarri nahian izaten gara, horrela zerbait irabaziko bagenu bezala. Bide erabat okerra.

Beste pertsona batzuekin gaizki ulerturik dakarren arazo bati aurre egiten diogunean,

arazo hori besteak eragindakoa dela pentsatzen hasi baino arazo horren oinarria norberarengan egon daitekeela pentsatzea dugu jarrera egoki eta zuzena. Besteen ekintzak zurutu eta baloratzeari ekin aurretik, norbere jarduera eta prozesuen sakoneko balorazioa egitea hobe.

Gure buru-jarrera aztertzean, arazoa inori leporatu edo leporatzen saiatu baino norbere ekintzak eta jarduerak aztertze- tik hasi beharra dago, gertatzen zaigun ona edo txarra geuk, ez beste inork, sortu eta eragindakoa baita. Gure zoriona oztopatu besterik egiten ez diguten amaraun asko eta mota ugari-koak dauzkagu. Eta amaraun guztietatik, zalantza izpirik gabe, gure gogoetaren berezko

Gure adimen-kalitatearen lekuko dira ahoz eta idatziz egindako adierazpenak

tresna bezala egunero darabilgun eta eragozpenik handienak sortzen dizkigun lanabes hauxe da: *hitza*

Hitzak sinboloak dira S.I. Hayakawa¹ k bere liburuan adierazten duen bezala. Hitz bati dagokion sinboloak hainbat ideia, esperientzia, adigai eta bizipe- nen konbinazio-bilketa suposatzen dezake. Gure azpikontzientea gure kontzientziarekin sinbolo edota ikurren bitartez, komu- nikatzen da. Hitzen bitartez, hitz jakin batzuen esanahiaren bitartez beste pertsona batzue- ngan edo euren egiteko, ekintza edota jarreretan eragin handia izan dezakegu, bai onerako, bai txarrerako. Beste pertsona bati, adibidez, “*ez dut lortuko duzu- nik uste*” edota “*ziur nago gaur*

ez bada bihar lortuko duzuna” adieraztera ematen diogunean etsipenerako bidea edota suges- tiorakoa komunikatzen diogu.

Hitzen bitartez adieraztera ematen ditugu gure sentimen- duak, gure ideiak, asmo eta ametsak. Besteen ahotan hitzek zer nolako esanahia duten jaki- teak edota guk darabilzkigun hitzei zer nolako balio eta esa- nahia ematen diegun jakiteak, garrantzi ikaragarria dauka gure buru zehaztasunaren proze- suan, gure barne adierazpenen eta pentsamenduaren kalitatea- ren lekuko baitira. Gure hitzek eta gure idatzizko adierazpe- nerako gaitasunak eta ahozko komunikaziorako dugun hitz- jarriak, ordenak eta barne egitu- rek gure buru-zehaztasunaren kalitatea adierazten dute.

Amaraun asko ditugu eta di- tugun asko gure buru-barnean daudenik ere ez dakigunez ezin kendu ditzakegu. Horrela gerta- tzen da, besteak beste ondoren azaltzen diren eta buru-ama- rauntzat jo ditzakegunokin: sinesmenak, sentimenduak, ohiturak, aurreiritziak eta emo- zioak.

Beste multzo batean azaltzen dira, adibidez, inoren haga bes- teengan ikusi baina norberean ziria ikusi ezin izatearen ama- rauna edota hitzaren erabilera okerrak sorrarazitako txarto ulertu eta eztabaida traketsez gain, esanahi semantikoak so- rrarazitako gainerako egoera deseroso eta larriak ere.

Ondorioz, buru-amaraun mota eta neurri askotakoak daude; batzuk handi ditugu, besteak txiki baina ez horrega- tik garrantzi gutxiagokoak. Ba- da, bestalde, ahulik edota indar- tsurik ere. Eta, hala eta guztiz ere, irakurle, zureak besterik ez dituzun beste buru-amaraunen zerrenda bat egingo bazenu eta ondoren amaraun bakoitzaren hariak zehatz-mehatz, zorrozta- sun handiz, aztertzeari ekingo bazenu, buru-amaraun denak

buru jarrera ezezkor garbiak eragindakoa direnaz ohartuko zara.

Bestalde, gai horretaz kontu handiz jardun eta behar beza- lako zorroztasunez egindako gogoeta egingo bagenu, buru jarrera ezezkorra josten duen buruko amaraunik sendoena zein den behingoan jakingo ge- nuke: **inertzia**.

Inertziak ezer ez egitera ga- ramatza edo emaitza onik izate- n ez denean, gelditu, etekin hobeak zergatik lortzen ez di- tugunari buruzko gogoeta eta azterketa sakona egin eta beste bide egoki eta hobeago batera- ko neurriak hartzera bideratu beharrean, inertziak ekintza berberak egiten jarraitu, bide berari eutsi eta berdin jardutera garamatza inolako aldaketarik egin gabe jarraituz. Eta guztiok dakigun bezala, hobera bidean azaltzen ez garenean, gure bar- ne-ohiturak eta inertziaren indarrak gure eginbeharrak berdin egiten jarraitzera ga- ramatza. Hori da inertziaren indarra.

Egitateak ezagutzen ez di- tuen edota ezagutza praktikorik ez duen pertsonari zentzuzkoa begitantzen zaiona, ezagutza eta praktika maila jaso dituen pertsonak zentzugabetzat jo ditzake. Mentalitate zabala eta egia ezagutu eta ikasteko jarre- rarik azaltzen ez dela erabakiak hartzen direnean ezjakintasun- naren amaraunagatik izaten da. Eta buru jarrera ezezkorrak bizirik jarraitzen baldin badu, ezjakintasunari esker garatzen delako da. Inertziak azaltzen de- nean lehendabizi identifikatu, gero erabakia hartu, eta azke- nik sustraitik kendu behar dira.

GORKA AURRE
prakagorri@prakagorri.es

1- “El lenguaje en el pensamiento y la acción”.


PRAKAGORRI
Reading skills
 Tel.: 944 915 763 · prakagorri@prakagorri.es

irakurri 4 ALDIZ ARINAGO
EMAITZA HARRIGARRIAK !
 Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermenak!
 Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
 Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure seme-alaben urtenbide

Bagaizan, berdintasunaren bidean badoazen Otxandioko feministak

Emakumeen jabekuntzan zein hezkuntzan eragin gura dute, besteak beste



Ane Unzalu, Andere Basterretxea, Ana Nogueira, Izarne Axpe eta Aintzina Basterretxea.

OTXANDIO J.D.

Bagaizan. Bagoazan. Badoazela, alegia. Berdintasuna dute helmuga, eta ibilian doazela, kontzientziak astintzea, hezkuntzan eragitea edota jabekuntzan sakontzea gura dute, besteak beste. Bagaizan Otxandioko Fe-

ministak berdintasunaren alde lan egiteko herrian sortu den lehen taldea da.

Ana Nogueira udaleko berdintasun arloko zinegotzia da. Arlo hori lantzerako orduan, arazo bat ikusi zuen: “Ez zegoen talderik edo berdintasunari

lotutako beste ezer herrian. Udaleko batzorde batean, adin desberdinetako neskak batu gura genituen. Horrela, honi eta hari dietzen hasi nintzen, eta lehen batzarrean hainbat lagun batu ginen. Zelako harrera izan zuen ikusita, ‘hau ez da udal ba-

rruko batzorde bat izango, hau talde independente bat izango da’, pentsatu genuen”. Horrela hasi ziren.

Adin desberdinetako 10 bat lagunek osatzen dute, gaur egun. Horrek “aberastu” egiten du taldea, Andere Basterretxearen arabera: “Bakoitzak bere ikuspuntua eskaintzen du. Esaterako, taldekide batek gogoratzten duenean gaztea zela lanean zer tratatu jasotzen zuen, konturatzten zara denboragaz aurrerapausoak eman direla, baina, aldi berean, oraindino egiteko asko dagoela ere ikusten dugu”.

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, egitarau potoloa antolatu dute eskolagaz eta udalagaz batera. Martxoaren 13an, domekan, ‘Emakumea eta Publizitatea’ erakusketa antolatuko dute Bolalekuan, 12:30etik 14:30era, Basauriko emakume taldeak utzita. Domekan, baita, ‘Grebak Gaude’ izeneko antzezlan (euro bi) antolatu dute, 18:30ean, eskolako kiroldegian.

Tertulia Lila da aurten antolatu gura duten beste ekimen bat. Liburu bat aukeratu, irakurri, eta denen artean komentatuko dute, aditu baten laguntzagaz.

Etzi emango dute Atxondoko ‘Herri Txiki Infernu Handi’ saioa

ATXONDO J.Derteano

ETB 1eko Herri Txiki Infernu Handi saioan Atxondo izango da protagonista domeka honetan, 22:00etatik aurrera. Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleek otsail erdian bisitatu zuten Atxondo, eta hainbat herritarrekin izan ziren. Ondoren, hurrengo astean, Axpeko elizan grabatu zuten programa, Apatako pilotalekua obretan dagoelako. Eliza txiki geratu zitzaion joan gura zuten denak hartzeko. Anbotoko Mari eta Arrazolako meategiak izan zituzten berba-gai, besteak beste.



Kirol instalazioen erabilera arautzea gura du EH Bilduk

Arazoari “errotik heltzea” eskatu du koalizioak

IURRETA A.Basauri

Kirol azpiegituren erabilera dela-eta, udalaren partetik “izugarrizko utzikeria” egon dela uste du Iurretako EH Bilduk. Inola-ko ordenantzarik ez dagoela azpimarratu dute; “ezta idatzizko hitzarmenik ere”.

EH Bilduk “beharrezkoa” deritzo kirol instalazio hauen erabilera arautuko duen ordenantzari, eta “arazoari errotik heltzea eta konpontzea” eskatu diote udalari, “futbol zelaiaren erabilaren harira sortutako liskarra estaltzeko ordenantza

‘partxe’ bat egiteko tentaldian erori beharrean”. Horretarako, erabiltzaile ohikoenak diren klubak “adostasuna bilatzeko bideak ireki behar” direla diote.

EH Bilduk nabarmendu duenez, “herriko kirol instalazioak erabilgarri egon behar dira. Lehenik, herriko kirol elkarte guztientzat, eta, ondoren, gai-nontzeko herritar guztientzat”. Ildo horretan gaineratu dute kirol klubek egiten duten lana “errazteko” eta “babesteko”, instalazio guztien erabilera arautu behar dela.

Biosasungarriak diren parkeak erabiltzeko deia

IURRETA A.Basauri

Parke biosasungarrien sustapenerako egitasmoa abiatuko dute, Iurretan, Bizkaiko Al-
dundiagaz eta Osakidetzagaz elkarlanean. 60 urtetik gorakoei zuzenduta, parke biosasungarrien erabilera sustatu gura dute, jarduera fisikoa sustatzeko. Ertzila industrialdean dago horrelako parke bat.

Apiril eta maiatzean, eguenero egingo dituzte saioak, aditu batek gidatuta, 09:30etik 10:30era. Kultur etxean aurkeztuko dute egitasmoa, apirilaren 7an, 19:30ean. Martxoaren 16ra arte eman daiteke izena.

70 urteko emakume bat desagertu da, Abadiñon

Eguaztenean eman zuten desagerpenaren abisua

ABADIÑO I.E.

Eguazten gauean ekin zioten 70 urteko emakume desagertua bilatzeari. Ertzaintzak jakitera eman duenez, egun horretan, 15:00etan, Montorreta inguruan ikusi zuten emakumea, azkenengoz. Desagerpenaren abisua jaso bezain laster, 22:30 aldera, hasi ziren bere bila, Traña-Matienan.

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak goizean goizetik jarraitu zuten, atzo, bilaketa lanekin, baina edizio honen itxierarako, emaitzarik lortu barik.

Bilaketan laguntzeko kolaborazioa eskatu die SOS Deiak-ek herritarrei: desagertu den emakumearen argazki bat argitaratu dute sare sozialetan, eta inork ezelako informaziorik badu, 112 edo 94 621 55 33 telefonora deitze-ko eskatu dute.

Abadiñoko Udalak zabaldu dituen datuen arabera, E.B.Z. dira emakumearen izen-abizenen inizialak. 1.55 metroko garaiera du, eta beltzarana da. Desagertu zenean, jantzi hauek zeramatzan: praka beltzak, jaka gorria eta zapatila beltzak.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

250.000 euro bideratuko ditu udalak Iturritzako urbanizaziorako

EH Bildukoek “mespretxatuta” eta “bazterrean” sentitu direla salatu dute



Iturritza kaleak berrizko hirigunea alde batetik bestera zeharkatzen du.

BERRIZ M. Zuazubiskar
EAJren 6 aldeko botoekin eta PSE-EEren babesagaz onartu

dituzte udal aurrekontuak. EH Bilduko hiru zinegotziak, berriz, aurrekontuen kontra ager-

tu dira. EH Bilduko Karmen Amezuak azpimarratu duenez, “Mespretxatuta sentitzen gara,

gehiengo osoa duzuenetz besteok bazterrean uzten gaituzue”. EH Bilduko kideek salatu dute ez zaiela bidezkoa iruditzen aurrekontuak onartu baino aste bete lehenago hauen gaineko azalpena jasotzea. Orland Isoird Berrizko alkateak aurrekontuak batzordeetan aurkeztzen joan direla adierazi die eta, PSE-EEko zinegotziak, berriz, gobernu taldeak aurkeztutakoak “ondo” daudela adierazi du.

5.651.000ko aurrekontua
2016rako, 5.651.000 euroko aurrekontua onartu dute azken osoko bilkuran, iaz baino 20.000 euro gehiagokoa. Horietatik 651.636 euro inbertsioetarako erabiliko dira. Diru horren zati handi bat, 250.000 euro, Iturritzako urbanizaziorako erabiliko dute. Nagusien Egoitzako eta Eskolako irisgarritasuna hobetzeko, 82.500 eta 11.500 euro erabiliko dituzte, hurrenez hurren. Proiektu hauez gain, beste hainbatetan ere inbertituko du udalak.

Iraunkor taldea aurkeztuko dute, zapatuan

ZORNOTZA J.D.
Zornotza garapen iraunkorren ikuspegitik lantzeko eta sustatzeko helburuz, Iraunkor taldea sortu dute. Talde honek, besteak beste, herriko elikagaiak ekoizten dituzten

hainbat ekoizle batzen ditu, eta talde hori aurkeztuko dute, zapatuan, 11:30ean, Zelaieta zentroan. Ondoren, 12:30ean, tokiko ekoizleen elikagaien dastaketa egingo dute Iraunkor taldeko lokalean, Pike Parkean, Pozu's tabernaren alboan.
Egun berean, Urtza Uriarte zornotzarrak tokian tokiko garapenari buruz egindako ‘Oinak lurrean’ liburua aurkeztuko du, 10:35ean, Zelaieta zentroan.

Habeas Corpus eta Zesuma taldean Gazte Egunean, bihar

ZORNOTZA J.D.
Gazte Egunak laugarren aldia egingo du zapatuan. 12:00etan umeentzako tailerrak (esku-lanak, aurpegi margoketa...)

egingo dituzte Parke Gorrian —Zubiondo plazan—. Ostean, 13:00etan, Zornotzako zantzarrek lagunduta kalejiran irtengo dira eta 15:00etan urteroko bazkaria egingo dute. Bazkalostea Eneko Larruzea ‘Larru’ musikari zornotzarrak girotuko du. Elektrotxarangak lagundutako kalejiraren ostean, 22:00etan, Habeas Corpus eta Zesuma taldeak kontzertua eskainiko dute Parke Gorrian.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ
EAJ



Emakumeak, dagigun! Berdintasuna, dagigun!

Martxoak 8, emakume langilearen eguna, emakumearen eguna. Zeren, zein emakume ez dau lanik egiten? Ondo legoke gaur egun bizi dogun 2016. urtean itzalpean geratzen den emakumeen lanak balio gehiago izatea. Etxean lan egiten dabien emakumeen esfortzuak kontuan hartuta beraien esku-bideak bermatzea.

Lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa lortu beharra dago. Kontziliazio egokia, eta ez erdi-ipurdikoa. Zeren ondo dago aukera deukien emakumeek beren semea edo alaba beraien lanpostura eramatea. Ez dagoz urruti telebistan politikari batetik protagonizaturiko irudiak bere seme jaioberriarekin. Askok txalotu zuten ekintza, baina zein da emakume gehieneko egoera? Aukera hori izatearena behintzat ez.

Utzi deiguzan antzerkiak alde batera, eta egin dezagun lan benetako kontziliazioaren alde, non emakumeek ez dezaten beraien lan jardunaldia murriztu behar, horrek dakarren soldata murrizketarekin. Has gaitezen lan ordutegiak egokitzen familia kontziliazio egoki batera. Ez dot uste hain larria izango litzakeenik gure ohituren ordutegia aldatzea.

Baina, honez gain, badekogu erronka garrantzitsuagoa, erantzunkidetasuna. Zergatik ez da gizonezkoa seme edo alaba jaioberria bere lanpostura daramana? Edo lan jardunaldiaren murrizketa eskatzen duena? Ez daitela beti emakumea izan sakrifizioa egiten duena. Landu dagigun behingoz erantzunkidetasuna. Eskerrik asko gure alde lan egiten dozuen elkarte feministei, eta beti ere zutik emakumeak!

DURANGALDEA ASTEON

Iurretarren elkartasuna, saharar errefuxiatuekin

IURRETA > Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan egon da Itxaso Garamendi zinegotzia, Iurretako Udalaren ordezkari gisa. Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoko (SEAD) aldarrikapenaren 40. urteurrena ospatu, “sahararrei iurretarren elkartasuna adierazi, eta autode-terminazio eskubidea aldarrikatu” zuten.

Alkoholismoak familian duen eraginaz berbaz

DURANGO > Alkoholikoen senitarteko eta lagunen Al-Anon elkarteak antolatutako mahaingurua izango da, bihar, 18:00etan, Nagusien Udal Egoitzan. Jose Antonio de la Rica medikuak eta Al-Anon eta Alkoholiko Anonimoen elkarteko kideek parte hartuko dute *Alkoholismoak familia giroan duen eragina* berbaldian.

397.915 zenbakiari egokitu zaio 21. iPad-a

DURANGO > Zubizarreta Lentzerian emandako 397.915 zenbakiari egokitu zaio Salerosketak Be Euskaraz ekimenaren barruan zotz egin duten 21. iPad-a. Martxoaren 1ean egin zuten ITG taldearen hileroko zozketa. Zozketa horren bidez, Durangoko dendetan erosketak euskaraz egitea bultzatu eta saritzen da.

IRITZIA

Eskubideak, betebeharrak?

Aspaldian igarrita nago, gure eskubideak ez urratzeko eta zuzen bete daitezen eskatzeko daukagun trebetasuna. Hau guztia zilegi da, baina eskubideak eskatzen dituenak betebeharrak be aintzat hartuta edukiko ditu, ezta?

Kasu konkretu bi salatzeke nahiarekin idazten dut gaur Anboton. Batetik, txirrindulariak, eta bestetik, txakurren jabeak. Kasu biak azaltzen hasi aurretik, argi esan nahi dut kasu bakan batzuek hitz egingo dudala, baina horiek egiten dute kalterik gehien, batez ere euren taldekoei. Txirrindularien kasuan, niri gertatutako kasu bitaz hitz egin dezaket. Azken hilabeteetan, Durangoko espaloietan, txirrindulari bik aurrean eraman naute kasik. Kasu batean, gainera, bere haserrearen jasan behar izan dut. Durangon, errepidea eta bidegorri bat dauzkagu txirrindularientzat, eta azken hori, ondo ala txarto planteatuta dagoen sartu barik, hor dago.

Txakurren jabeek ere, euren eskubideak sarritan argitaratu dituzte. Txakurrentzako guneak badaude Durangon, baina gune hauek, euria denean, ez dira hain erakargarriak, eta hobe da aterpean ibiltzea. Niri txakur batek ere ez dit arazorik sortzen, baina hauek euren beharrianak larria daukaten tokian egin eta euren jabeek bertan uztea da arazoa. Gainera, noizbait, hauetako baten bati biltzeko betebeharrak ohartaraztean, hauen harridura edo erantzun ezegokiaren bat jaso dut. Txirrindulariei ibili behar diren tokitik ibiltzea eskatuko nieke, eta txakurren jabeek gizalegez jokatu eta euren txakurren kakak batu ditzatela eskatuko nieke.

Errespetua errespetuarekin lortu behar da, eta eskubideen lorpena ere betebeharrekin lotuta dago.

Gorka Larrinaga (Durango)

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Gemma Sangines | Psikologoa da, eta hizkuntza aktibismoarako tailerrak ematen ditu | Bilbo, 1970

“*Erabileran itzelezko iraultza lortuko genuke, ditugun aurreiritziak aldatzea lortuz gero*”

EHEk antolatutako hizkuntza aktibismoari buruzko tailerra gidatuko du Gemma Sangines psikologoak, bihar, Durangon

> BERBAZ Aitziber Basauri
Hizkuntza naturaltasunez eta erosotasunez erabiltzeko TELP tailerren sortzaileetako bat eta ‘l’rten hizkuntzaren armairutik’ liburuaren egileetako bat da Gemma Sangines. Psikologoa da, eta, orain, EHE-rekin batera hizkuntza aktibismoarako tailerrak prestatu ditu.

Euskaraz dakien ala ez jakin gabe, gaztelaniaz egiten diogu aurrean dugunari. Oso zabaldua dagoen ohitura da hori? Erosoago sentitzen gara? Gizarte elebidunean bizi garela suposatzen da, baina, ez da horrela: batetik, gaztelania dago, ondorio neutroak dituen hizkuntza. Bestetik, euskara, ondorio neutrorik ez duena: hau da, besteak ulertuko ez digula da gure aurreiritzia, erantzun zakarrak jaso genitzakeela... Interakzio bakoitzean, elebiduna denak erabakia hartu behar du. Horri estres linguistikoa deritzo. Horregatik, askotan, neutralitatearen alde erabakitzen da; ondorio txarrik ez izatea.

Estres linguistiko hori sendatu daiteke?

Sendatu, edo behintzat, gutxitu. Badago zati bat ikastekoa dena: alde psikologikoa. Estres linguistikoa gutxitzeko baliabide psikologikoak daude. Hala ere, hizkuntza normalizatzen ez bada arlo legalean, politikoan, ereduak dagokienez... oso zaila da hiztun normalizatua izatea. Alde psikologikoan egiten dugu lan tailerretan.

Inguruko hizkuntza-ohiturak euskalduntzeko, aurretik gureak zuzendu behar ditugu?

Bai. Alde pertsonalean, kognitiboan, gure aurreiritziak zeintzuk diren detektatu behar dugu. Solaskidearen aurrean gaudenean, geure buruari esandakoetan pentsatu behar dugu: adibidez, ‘ez digu ulertuko’, ‘txarto sentituko da’, ‘ez diot erraztasunik ematen’... Aurrez aurre gaudela, pentsatutako hori guztia aldatuta, askoz gehiago hitz egitea lortuko dugu; euskararen presentzia askoz handiagoa izango da. Gizarte moduan, euskararen erabile-



Argazkiexpress

rari, presentziari dagokionez, itzelezko iraultza lortuko genuke ditugun aurreiritzi horiek aldatuz gero. Gaur egungo portzentaia eskas horiek aldatuko genituzke.

Pauso txikiekin pauso handia eman daiteke...

Ez dakit pauso txikiak diren. Urte batzuk dira hau esaten ari garena, eta ez dakit zenbateko eragina izan duen, zenbatean iritsi den mezua. 2008tik hona, ia 4.000 pertsona pasatu dira TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) tailerretatik. Baina, erabilera ikertzean, ez da sumatzen aldaketa handirik. Telebista, kualitatiboki, gutxira joan da eredu moduan; hezkuntza-duintasuna ere bai. Hori oso garrantzitsua da. Ikus daitekeen eredu nabarmenik ez badago, tamaina txikiko pausoak ez dira ikusten, ezin dute eragin handirik izan.

Telebista aipatu duzu.

Oso garrantzitsua da. Duela urte batzuk, politikari batek —kontzientziaduna, abertzalea eta euskaltzalea— telebistan bota zuena jarriko dut adibide

lez. Bi minutuz hitz egin ostean, bere burua deseroso ikusi, eta haxe esan zuen: ‘bueno, vamos a acabar rápido, que tenemos prisa, y entonces, lo vamos a hacer en castellano’. Hankasartzea izan zen, baina, urteetako lana pikutara bidali duzu hori esanda bakarrik. Horregatik dira horren garrantzitsuak ereduak, eta eredu horiek ikusgarriak izatea. Telebistan agertzen ez dena ez da existitzen, badakigu.

“*Estres linguistikoa gutxitzeko tresna psikologikoak daude*”

“*Gure aurreiritziak zeintzuk diren detektatu behar dugu*”

Hizkuntza aktibismoaren tailerra gidatuko duzu, bihar, Durangon. Zer landuko duzue?

Badaude euren hizkuntzari eutsi gura dioten pertsonak. Horiek, nahiz eta hizkuntza gutxitua hitz egin, ahal duten neurrian eroso sentitzeko tresna psikologikoak dituzte. Pauso bat aurrerago ematean datza hizkuntza aktibismoa: besteeen eragina izatea. Betiko kontraesanetan jausi gabe, eragin efikaza nola lortu landuko dugu; noraino helduko garen eta zer lortuko dugun neurtzen jakitea. Diseinu onak egitea.

Aktibatuta gaude?

Gogo handia dagoela uste dut, gauza batzuk oso eraginkorrak direla, eta oso ondo pentsatuta eta antolatuta daudela, eta beste batzuk ez. Euskararekiko sentsibilizazio handia dago. Beti egon da. Hala ere, orain irudimen handiagoa erabiltzen dela uste dut, eta eragina efikazagoa dela. Ibilbide luzea du eginga Eukal Herrian Euskarazek (EHE), eta adibide direla uste dut. Gauza asko egin dituzte, oso aktiboak izan dira. Batzuetan eraginkorrak izan

dira, eta beste batzuetan aurkako efektua lortu dute, baina, horretan gabiltza. Nabarmenezkoa dute mobilizatzeko duten eragina, duten sare soziala.

Euskaraz ez dakienarengan eragin dezake horrek?

Hiztun berriari ematen ari garen mezuaz jabetu behar gara. Hamar urtean Euskal Herrian bizi dena ‘kaixo’ eta ‘agur’ esateagatik txalotuz, zein mezu ematen dugu? Hiztun berri bati elkarriketa bakoitzean esaten badiogu ‘ze ondo, ez zara bertokoa eta euskaraz’... arraroa den zerbait egiten ari dela esaten ari gara, behin eta berriro. Lehenengoan errefortzu positiboa dena, behin eta berriro esanez gero, zigor bihurtzen da. Normalizat hartu behar dugu guk zein solaskideak euskaraz egitea. Aldi berean, euskaraz egiteko beharra eragin behar da. Administrazioan, horretan egin beharko lukete lan, baina, hori ez dago gure esku. Hala ere, hiztun moduan, hitz eginda bakarrik euskaraz presentzia duela ikusiko du solaskideak, eta guregana heltzeko beharrezkoa ikusiko du.

Aritza Rodriguez (Zaldibar, 1977) | Malas Compañías antzerki taldeko kidea



'Letter' obraren aurkezpen biran, eta 'Uda gau bateko ametsa' antzezlanaren prestaketa lanetan dabil asteotan, Aritza Rodriguez.

“Aretorako ikuskizun batean antzerkia eta zirkua uztartzea ez da oso ohikoa gurean”

Bihar, Zornotzan, eta martxoaren 20an, Durangon, eskainiko dute uztarketa horren emaitza: 'Letter'

> ANTZERKIA Itsaso Esteban
Asteburu honetan eta hurrengoan, Zornotzan eta Durangon eskainiko duzue 'Letter'. Zer sentsazio duzue saioetarako? Politza izaten da Durangaldean aritzea, publikoan jende eza-guna egoten delako, eta horrek gogotsuago aritzea dakarrelako. Baina egia da azken aldian asko aritu naizela hemen: duela gutxi *Moby Dick*-ekin, adibidez.

Zer ibilbide darama 'Letter'ek?
Urtarrilaren 7an, Bilboko Arriagan estreinatu genuen, eta geroztik, hainbat emanaldi eskaini ditugu. Hemendik udara arte, Euskal Herriko hainbat antzokitango gara.

Orain arte, zer harrera egin dizue publikoak?
Zirkua kalean ikustera ohituta gaude Euskal Herrian, areto barrurako ikuskizun batean antzerkia eta zirkua uztartzea ez da oso ohikoa gurean. Baina, hala ere, harrera ona egin digu jendeak, eta poz-pozik gaude.

Aretorako zein kalerako bertsioak prest dituzue, ezta?
Momentuz, barrurako bertsioagabiltza, eta Leioako antzerki jaialdian estreinatuko dugu kalerako moldaketa. Apirilean eta maiatzean ibiliko gara lana kalerako moldatzen.

Lan bat kalerako moldatzeko, zer aldatu behar izaten da?
Eszena aktoral intimoa eta txikiak aldatu behar izaten dira, esaterako. Bisualki ikusgarriagoak diren gauzak behar dituzu kalean, jendea harrapatzea lortu behar baituzu.

Kalerako lanean ibili izan zarete gehien Malas Compañías taldekoak, ezta?
Bai, kalerako ikuskizunetan, zirkua eta antzerkia uztartzen ibiltzen gara gehien. *Orsai* ikuskizunean, aktore bat ordezkatzeko sartu nintzen taldera, orain lau urte. *Txatarra* kaleko ikuskizuna sortu genuen gero, eta obra hori aurkezten ibili gara azken bi urteetan.

Taldeko hiru kideak zabilzate 'Letter'-en oholztan.
Bai, Diego Aimar eta Mikel Pikazagaz dihardut oholztan, eta Agurtzane Intxaurragak dihardu zuzendaritzan.

Zer ekarpen egin dio Intxaurragaren zuzendaritzak lanari?
Hiru mutil gara zirkua egiten, eta hain energia maskulinoa orekatzeko, emakume batek zuzentzeak on egingo zigula pentsatu genuen. *Ogro txikia* antzezlanean zuzendari izan nuen, eta *Txatarra* ere zuzendu zuen. Oso gustura gaude beragaz.

Gutun baten idazketa eta bidualketa kontatzen du obrak.
Bai. Dramaturgiari dagokionez, konplikazio askorik bakoa da lana; nire pertsonaiak idatziriko gutun baten bidaia kontatzen du. Mikelen pertsonaia da gutuna bere helmugara eramaten duena, eta Diegok gutuna itxaroten duenaren papera jotzen du. Akrobaziak, malabareak, oreka kableko saioak... denetik baliatzen dugu gutunaren bidaia kontatzeko. Beti, Carlos Imazek obrarako sortu duen piano musika ederrak lagunduta.

Askorentzat aspaldiko kontua izango da eskuz idatzitakoa postaz bidaltzea...
Bai, antzezlanaren gaiak badauka konnotazio melankoliko eta oso poetiko hori. Badirudi, gutun bat eskuz idaztea, jaso eta fisikoki edukitzea, mundu zahar bateko kontua dela.

Bilboko Arriagako ekoizpen batean lanean zabilzate, gainera, entseguetan buru-belarri.
Bai, William Shakespeare-ren *Uda gau bateko ametsa* obraren bertsio bat prestatzen gabilzta,

apirilean Arriagan bederatzi emanaldi egiteko. Hiru hizkuntza darabiltzagu; euskara, gaztelania eta ingelesa. Obran hiru motatako pertsonaiak daude, eta bakoitza hizkuntza batean mintzo da; basoan bizi direnak, pertsonaia fantastikoak, euskaraz; maiteminduta dauden bikoteak eta komikoak, gaztelaniaz, eta monarkiaren munduan bizi diren pertsonaiak, ingelesez. Euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenak eskainiko dira emanaldietan.

Zelan lortu duzu lan honetan jarduteko aukera?
Hautaprobarik egin barik proposatu zidaten lan hau. Izan ere, Arriagako hainbat ekoizpenean egin dut lan azkenaldian, eta aproposa ikusten zuten pertsonaia niretzat.

'Puck' zara obra horretan. Zela-koa da pertsonaia?
Oso polita da, kolore askokoa; basoan bizi den iratxo naiz, zeinak, bere edabeagaz, jendea bat-batean maiteminarazten duen. Shakespeare-ren obrako endredoa abiatzen duen pertsonaia bihurri eta ganberroa naiz.

Momentu profesional gozoa bizi duzula dirudi, lan asko egin eta hainbat errekonozimendu jaso dituzunez. Horrela da?
Egia esan, oso pozik nago nire bizitza profesionalagaz. Dena den, lan egiteko aukera edukitzeagaz bakarrik pozik nengo, ez dut besterik behar. Nire helburu nagusia lan honetatik bizi ahal izatea da, eta esateko duguna modu polit batean esateko aukerak izaten jarraitzea. Baina, honetaz bizitzeko, saltsa askotan egon behar duzu.



Malas Compañías taldeko hiru kideak dira 'Letter' antzezlaneko aktoreak.

> MUSIKA Itsaso Esteban

Ana Hernandez biolinista, Mayte Olmedilla biola-jotzailea eta Lila Horovitz kontrabaxista dira The Funamviolistas sortu duten hiru musikariak. Rafael Ruizek zuzenduta, emanaldia eskainiko dute, bihar, Berrizko Kultur Etxean.

Vivaldi, Grieg, Massenet, Bizet, Piazzolla edo Pavonen musikak izango dira, esaterako, entzungai

Hiru musikari horien proiektua bultzatzeko diru-ekarpena egin zuten 113 lagunren babesagaz osatu zuten ikuskizuna, eta 2013an egin zuten estreinaldia. 2014an zehar, 70 emanaldi baino gehiago eskaini zituzten, eta Max sari bat ere jaso zuten.

Jotzen zuten orkestratik kaleratutako hiru emakume dira ikuskizunaren protagonistak, hiri bateko banku batean elkar ezagutzen duten hiru lagun.

Funamviolistas hirukotea ikusteko eta entzuteko aukera, bihar, Berrizen

Martxoaren 8aren harira antolaturiko egitarauaren barruko emanaldia da



Hari-instrumentuak jotzen dituzte taldeko hiru musikariek.

Musika eta antzerkia uztartzen dituzte emanaldian: musikatik dantzara, eta hortik antzerkira, berbarik barik, baina umore dosi handiarekin zuzen-

tzen dira ikusleengana. Vivaldi, Grieg, Massenet, Bizet, edo Piazzollaren obrak zein soinu bandak, jazzeko klasikoak edo tangoak izango dira entzungai.

Berrizko Udalak martxoaren 8aren harira antolatu duen programazioaren barruko emanaldia da The Funamviolistas hirukoteak eskainiko duena.

Irakurketa Errazaren kluba martxan ipini dute, Iurretan

Eguazten honetan egin dute lehenengo saioa

> LITERATURA I.E.

Astean behin bilduko dira Irakurketa Errazaren klubeko parte-hartzaileak, Iurretako Herri Bibliotekan. Eguaztenean izan zuten lehenengo hitzordua, eta 10:15etik 11:15era elkartuko dira, eguaztenero.

Irakurtzeko ohiturarik ez duten 55 urtetik gorako herritarrei zuzenduta antolatzen du Herri Bibliotekak irakurketa klub hau: azken aldian gutxi irakurri dutenei, edota zer irakurri jakiten ez dutenei.

Irakurketa Errazeko liburuak eskainiko dizkiete saioetan, eta taldean irakurri, zein irakurritakoa partekatzeko elkartuko dira, eguaztenetan.

Iurretako Udalak eta Eus-kadiko Irakurketa Erraza erakundeak babestu dute irakurle talde honen sorrera.

Taldean irakurri, zein irakurritakoa elkarrekin partekatzeko elkartuko dira irakurle talde horretan

Iurretan, Biblioteka inklusi-boago bat lortzeko helburuagaz dihardute, eta, horretarako, "jaioberrietatik hasi, eta ehun urte arteko herritar guztientzako irakurketa klubak eskaintzea", erabaki dute.

Aste Santuko kontzertua eskainiko du Tabira Bandak

> MUSIKA I.E.

Martxoaren 12an, bihar, Durangoko Andra Mariaren basilikan eskainiko du Aste Santuko kontzertua Tabira Musika Bandak. Jesus Castillejoren zuzendaritzagaz jardungo da Banda, 20:00etan.

Kontzertu horretan eskainiko duten erreperitorioa ere aurreratu dute Musika Bandaren arduradunek. Prozesioetako hiru martxa eskainiko dituzte; *Jerusalén*, *Macarena*, eta *Nuestro Padre Jesus*. Emanaldian interpretatuko dituzten beste lau kantaren izenburuak ere aurreratu ditu Durangoko Musika Bandak: *Agüero*, *Caballería ligera*, *Orion*, eta *Variatione In Blue* joko dituzte.

Zubiaur Musika Eskolako ikasleen emanaldiak, datorren astean

> MUSIKA I.E.

Zornotzako Zubiaur Musika Eskolako ikasleen emanaldi bi hartuko ditu Zelaieta zentroak, datorren astean. Martxoaren 15ean, 18:00etatik aurrera, saxo, klarinete eta tronpeta ikasleek eskainiko dute emanaldia. Martxoaren 17an, 18:30ean hasita, berriz, piano ikasleen txanda izango da. Zelaieta Zentroan izango dira emanaldi biak.

Martxoaren 15ean eta 17an eskainiko dituzte musika ikasleek emanaldiak, Zornotzako Zelaietan

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA

Irakaslea

**11M Zorritos**

Martxoa iritsi da, eta atzeratu zaigun negua ederto ari da bere zorrak ordaintzen azken egun hauetan. Ostiral honek badu zigilu edo marka berezi bat, 11M.

Honelakoetan denok, sikiera, instant batean, egun horretan duela hamabi urte non geunden eta goiz hartako albisteak zelan batu genituen ekartzen dugu gogora. Inoiz, inon ez bezala, gertaera bat zuzenean nola manipulatu daitekeen bizi izan genuen. Esandakoak esanda ere, inor ez zuten kaleratu, kartzelaratu, ezta epaitu ere. Gezurra badirudi ere, boterea berreskuratu zuten handik gutxira. Martxoaren 3ko gertakariekin bezala, inpunitatea, euren kodigo genetikoan txertatuta dagoela dirudi, eta "patente de Corso" horrekin jarraitzen dute oraindik ere. Non daude "casta" honen mugak? Edo Erdi Aroan bezala, herri xumeak ez dituen pribilegioak al dituzte?

Peruko iparraldean, Zorritosen nengoen ni. Albistearen oihartzunak erraz gurutzatu zituen itsasoa eta kontinentea, eta bertako herritar batek gogor astindu zuen nire kanpin-denda berria emateko. Ezetz esaten nion, begiak begi zuloetatik irtenda, ezinezkoa zela Euskal Herriaren askatasunaren izenean horrelako ekintza bat egitea, eta berak CNN telebista-kanala horren berri ematen ari zela erantzun zidan, herriko tabernako telebista ikusteko gonbita eginez. Herrira heldu orduko, eta kontuan hartuta bi kontinenteen artean sei orduko aldea dagoela, hedabideak beste hipotesi batzuk mahaigaineratzen hasiak ziren, eta herritarrek beste era batean begiratu zidan, nire lasaitasunerako.

Hamabi urte pasatu dira Zorritosen ustekabeen esnatu nindutela, eta, zoritxarrez, berrek jarraitzen dute agintzen.

Zinegoak 2016
Bilboko gaylesbotrans 13. nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdia
Martxoaren 11n, 20:00etan

Alarde de danzas
Día de Andalucía
Martxoaren 12an, 19:00etan

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

MARTXOAK 11
21:30ean
LOS CHICHOS
AZKEN KONZERTUAK
KONZERTUA

MARTXOAK 12
18:00etan
EUSKAL ASSAULT
KONZERTUA

MARTXOAK 14-20
MARTXOAK 14
17:00 OISETAN
KOMIKIGINTZA
ZILAR ASTEA



RENAULT
Mouvement Pour l'Art

Eleganten anšuko šilgailukis apgaudo raudoną bechik sušam, sta amari vėjų dailgu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURERAN

[illegible]**RENAULT
OCASIÓN**

FOR IT EDURE EMANGO NORBELAND AUTO SATENGATIN

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gasur.com

Kantuan eta dantzan ospatuko dute, bihar, andaluziarren eguna, San Agustinen

Durangoko Andaluziarren elkarteak antolatu du, bihar, 19:00etan hasiko den San Agustingo emanaldia



Folklore andaluziarreko kantak abestu, eta dantza ere egingo dute, Durangoko Andaluziarren elkarteak.

> MUSIKA **Itsaso Esteban**
Durangoko Andaluziarren elkarteak abesbatzak eta Kriskitin dantza taldeak parte hartuko

dute San Agustin kulturguneko musika eta dantza emanaldian, bihar. Gainera, Sebastian Fraile *El Charro* flamenko abeslari

durangarraren ahotik, saeta bat entzuteko aukera ere izango da. Ohi bezala, emanaldiari hasiera emateko, agurra dantzatuko

dute Durangoko Kriskitin taldekoek. Azken bost urteetan andaluziarren elkarteak abesbatza zuzentzen jardun den Juanan

Buenok azpimarratu duenez, “aspalditik daukagu laguntasuna Kriskitineko dantzariekin, eta beti gonbidatzen ditugu gurekin parte hartzera”.

Buenok azaldu duenez, Andaluziako doinu tradizionalak eta pop abeslari andaluziarren kantak ere eskainiko ditu abesbatzak, San Agustingo biharko emanaldian: *sevillanak*, *malageñak*, eta Antonio Florensen kantak, esaterako. Abesbatza laguntzen ibiltzen diren Ermuako Andaluziarren zentroko bi gitarra-ristek ere joko dute Durangoko biharko emanaldian.

Belaunaldien artekoa

Kantatu ezezik, dantza ere egingo dute Andaluziarren abesbatzako kideek San Agustinen. Hogeitaz inguru dira abesbatza osatzen dutenak; 60 urtetik gorako hamabost lagunek, eta 20 eta 35 urte arteko beste zazpi osatzen dute abesbatza.

Hamarkada bi dira 1987an eratu zuten Durangoko Andaluziarren zentroan abesbatza sortu zutela, eta, astean behin elkartzen dira, gaur egun ere. Buenoren berbetan, pozik dauke abesbatzaren aitzakian jatorri andaluziarreko belaunaldi desberdinen artean sortzen den harremana ikusita.

Yoko Out durangarrak eta Piztiak, Elorrion

Gaztetxean joko dute, bihar, 22:00etan hasita

> MUSIKA **I.E.**
Piztiak laukotea eta Yoko Out Durangoko taldea gonbidatu dituzte, bihar, 22:00etatik aurrera, Elorrioko Gaztetxean jotzera.

Laurogeiko hamarkada amaieran, Ondarroa eta Mutriko musikariak sorturiko taldea da Piztiak, hainbat urteko geldialdiaren ostean, iaz, *U* diskoa kaleratu zuena. Josu Aranbarri, Peio Larrañaga, Jesús Galan eta Txomin Uribe musikarien doinuak, eta Kirmen

Uriberen letrak bildu zituzten *crowdfunding* bidez finantzatu zuten disko horretarako.

Yoko Out Durangoko zazpikoteak, berriz, *Portabentura* izeneko bigarren diskoa kaleratu zuen 2014an, eta, besteak beste, lan horretako aleak eskainiko dituzte Elorrioko zuzenekoan.

Apirilaren 16an ere izango da Yoko Out Durangaldean entzuteko aukera: Izaki Gardenak taldearen aurretik joko dute, Durangoko Plateruenean.



Benighted frantziarra da karteleko bederatzi taldeetako bat.

Metal musikaren jaialdia, Durangon

Bigarren antolatu dute Euskal Assault jaialdia

> JAIALDIA I.E.

Metal musikaren doinuek hartuko dute Plateruena Kafe Antzokia, bihar. Euskal Assault jaialdiaren bigarren edizioa burutuko dute Durangon. Euskal Herriko zein Europako beste hainbat herrialdeetatik etorritako bederatzi musika taldegaz osatu dute musika jaialdiaren kartela; Sorgerth, Teething, Sinister, Virulency, Benighted, Anihilated, Ankhar, Mutant eta Cancer taldeek joko dute.

Musika jaialdira datozenak hartzeko, 17:00etan zabalduko dituzte Platerueneko ateak, eta 17:30ean ekingo diote lehenengo emanaldiari. Ankhar talde gipuzkoarrak eskainiko du jaialdiko lehenengo emanaldia. Bermeoko Sorgerth, Virulency bilbotarrak, Teething madrildarrak, Mutant galiziarrek, Anihilated ingelesak, Benighted frantziarrak, Sinister holandarrak eta Cancer ingelesak ariko dira, hurrenez hurren.

Mendizabalen eta Furundarenaren emanaldia, Jaizalaren eskutik

> MUSIKA I.E.

Jaizale Durangaldeko txistularien taldeak gonbidatuta etorriko dira Garikoitz Mendizabal (Zestoa, 1976) txistularia eta Aitor Furundarena (Ordizia, 1970) soinu-jolea, bihar, Durangon kontzertua eskaintzera. Kurutzesantu Museoa izango da emanaldia, bihar, 19:00etan hasita. Doako sarrera edukiko du kontzertuak.

2 poliedro izenburuko laneko kantak, 2015. urte amaieran aurkeztu zuten diskorako prestaturikoak, eskainiko ditu musikari bikoteak, Durangon. Disko bikoitza da *2 poliedro*; Jesus Guridi, Pablo Sarasate, Domenico Scarlatti, Antonio Vivaldi, John Dowland, Isidro Ansorena, Jackie Pedeloy, Eduardo Gorosarri, eta Gorka Hermosa musikagileen konposizioen interpretazioak biltzen ditu diskoak, eta txistuagaz eta akordeoiagaz jotzeko moldaturikoak dira denak. Musika tradizionalak eta doinu garai-kideak izango dituzte entzungai, Kurutzesantuko Museora bertaratzen direnek.



Ia hiru hamarkadako ibilbideko taldea da Piztiak.

David De Paula | FK Austria Wieneko futbol jokalaria | Durango, 1984

“Futboleak, beste kulturak ezagutzeko beldurra galdu da”

Hiru urte eta erdi daramatza Austrian David De Paula futbolari durangarrak, eta ez da damutzen Europako liga batera irteteaz

> FUTBOLA Paul Bustindui

Lezamatik irten eta bigarren B mailako makina bat futbol zelaitan ibili ostean, Europarako bidea hartu zuen De Paulak. Wolfsberger AC talde austriarretik FK Austria Wien historikora. Gaur egun, hantxe jarraitzen du jokalaria durangarrak, 31 urterekin futbol mailarik gozoena ematen ari den urteetan.

2012ko udan, Wolfsberger AC talde austriarraren eskaintza jaso, eta onartu egin zenuen. Zelan gogoratzen duzu?

Entrenatzaileak kontaktuan jartzen dira jokalarien agenteekin, eta hauek jokariak eskaintzen dituzte. Nenad Bjelica entrenatzaile kroaziarrak Wolfsberger bigarren mailatik lehen mailara igo zuen taldea, eta bertan nahi ninduen.

Zelakoa izan zen herrialde berri batera ohitzea?

Ingelesarekin zeozer egiten nuen arren, hasierako hilabeteak apur bat zailak izan ziren. Entrenatzailearekin gaztelaniaz mintzatzeak asko lagundu zidan.

Bjelicak Austria Wien FK-rako bidea hartu zuen, eta bere eskutik eraman zintuen Vienara, 2014an.

Austriako talde gorena da, titulu gehien dituen. Oso erronka polita da elastiko hau defendatzea.

Zelan doa aurtengo denboraldia?

Aurreko denboraldian emaitza txarra lortu ostean, aurtun lehenengo hiru postuetan bukatu nahi dugu, eta bide onetik goaz. Momentuan, hirugarren gaude.

Jokalaria moduan, posizio ezberdinetan ibili zara azken urteetan.

Nahiz eta hegaleko jokalaria izan azken urteetan, *engantxe* gisa, zelai erdiko pibote eta *karrillero* moduan ere ibili naiz. Gustura nago edozein posiziotan.

Beste denboraldi baterako kontratua daukazu Vienarekin, urte bat gehiago luzatu daitekeena. Jarraitzeko gogoz?

Oso gustura nago hemen, eta urte askoan jarraitzea espero dut. Hiru urte eta erdi hauetako pausoaz ez naiz damutzen.

Durangaldeko futbolari gazte asko bezala, Lezamatik pasatu zinen lehen urteetan. Zer gogoratzen duzu urte haietaz?

Oroitzapen on ugari ditut. Gogoratzen naiz, jubenetan, oso talde polita geneukala. Urte horretan, ohorezko mailako

liga irabazi genuen, eta estatuko talde guztien artean egiten den txapeladun faserara iritsi ginen. Bilbao Athleticen pasatu nituen urteak ere oso onak izan ziren, taldekide on asko gogoratzen baititut. Sekula ahaztuko ez dudana etapa izan zen Lezamakoa.

Mendilibarren eskutik, Athleticen lehen taldearekin debuta egitera iritsi zinen, Intertotoko CFR Clujen aurkako kanporaketan. Zer sentitzen da San Mamesen jokatzeko?

Egun oso politak izan ziren haiek niretzat. Harrobitik ibilitako gazteek aukera paregabea izan genuen kanporaketa hura jokatzeko. Tamalez, itzulerako partiduan, penalti jaurtiketetan kanporatu gintuzten. Baina, oso oroitzapen ona daukat San Mamesen jokatu izanaz, une ahaztezina izan baitzen.

Athleticetik Alacanterako bidea hartu zenuen, baina, denbora gutxira, Lemoara itzuli zinen. Zelan gogoratzen dituzu brontzezko mailako urte haiek?

Alacanten ez nuen aukera askorik izan, eta Lemoara itzuli behar izan nuen, berriro hasiera. Alacanten playoffak jokatu zituen taldeak, eta nahiz eta minutu gehiago nahi, eta aulkian denbora luze egon, asko ikasi nuen urte hartan.

Bigarren B mailan urte asko eman dituzu. Lemoan jokatu ostean, Ponferradina taldean eman zenituen hilabete batzuk. Eta bertatik Palentziara. Gustura ibili zinen urte haietan?

Palentziako etapa kirol ibilbideko politenetakoa izan zen. Oso talde apala ginen arren, emaitza oso onak izan genituen. Futbolari moduan, gustura zauden momentuetako bat izan zen hura, taldekide guztiak oso lagunak baikin.

Palentziatik Errioxara. Logroñesen ere urte oso on bat burutu zenuen 11 gol lortuta.

Logroñesen urte oso emankorra izan nuen golei eta asistentziei dagokienez, baina ez genituen bete talde modura denboraldi hasieran jarri genituen helburuak.

Urte askoan ikusten duzu zure burua Austrian, ala hona itzultzea nahiko zenuke?

Oso gustura nago hemen, eta urte asko jarraitzea espero dut. Itzultzeko presarik ez daukat, momentuz.



“*Oso gustura nago hemen, eta ez daukat itzultzeko presarik, momentuz*”

Athleticen harrobian ibili zinen Ustaritzekin, eta biok eman duzue jautzia Europa-ra, futbol ibilbideari jarraitzeko. Futbolarientzat ate berri bat zabaldu da?

Ekonomia krisiaren ondorioz, Espainian izandako futbolaren krisiak jokalaria asko behartu ditu horretara. Beste kulturak ezagutzeko beldur hori galdu da. Kanpoan aukera oso onak daude, gaur egun, etxean lortu ezin diren eskaintzak.

Athleticen denboraldia jarraitzen duzu Vienatik. Zelan ikusten duzu talde zuri-gorria?

Egia esan, ez nuen espero hain maila ona emango zutenik. Jokalaria on asko dituzte, oso talde konpaktua da, erasoko jokoa erakusten dabilena. Bolada on batean dago, eta European gauza onak egin ditzake.

Debuta egiteko aukera eman zizun Jose Luis Mendilibar zaldibartarra ere denboraldi bikaina ari da burutzen, Eibarren. Pertsonalki, oso oroitzapen onak ditut berarekin. Entrenatzaile ona izateaz gain, pertsona aparta da. Meritu handia dauka aurtun lortzen ari denak, aurrekontu txikiagoarekin sailkapenaren aurreneko hamarretan baitauka taldea. Gainera, uda oso gogorra izan zuten, tarte laburra izan baitzuten jokariak fitxatzeko.

Durangozko zeren falta sumatzen duzu Vienan?

Azkenean, bizimoduari dagokionez, munduko edozein tokitara egokitu gaitetzeko, baina familiaren eta lagunen falta sumatuko dugu beti. Oporretan, urtero bueltatzen naiz.

“Azken txanpan, halako ahalegina eta gero etapa irabaztea baino ez neukan buruan”

Kondizio klimatologiko gogorretan garaipen handia lortu du Gartxot Gisasolak, Kantabrian



Ezkerreko argazkian, Gartxot Gisasola erdian, podiumeko koskarik gorenean. Eskumakoan, txirrindularitza probako une bat.



> TXIRRINDULARITZA J. D.
Txingorra, euria, hotza, errepide irristakorra... berba bitan esanda: eguraldi txakurra. Kondizio klimatologiko horietan lehiatu zuten, iragan asteburuan, master mailako Santander Hiria txirrindularitza proba, eta Gartxot Gisasolak (1976, Berriz, Durangon bizi da) irabazi du: “Azken txanpan, behin hainbeste kilometro eginda, txingor eta guzti ere, etapa irabaztea baino ez neukan buruan. Hainbeste ahalegin eta esfortzuren ostean, banekien gatxa zena, baina ‘hau ondo amaitu behar da’ esaten nion neure buruari”, gogoratu du Gisasolak.

Ohi legez, hasieran, ihesaldia sortu bitartean, “zoramen” nagusitu zen, eraso eta kontraerasoekin. Lauko taldea sortu zen aurrean, tartean Gisasola zegoela. Une batzuetan, errepide “oso txarto” aurkitu zuten, txingorren ondorioz: “Bihurguneetan, batez ere, arriskutsu zegoen”. Azken mendatean (2-3 km) Ivan Treceño eta biak buruz buru geratu ziren. Gisasolak latz sufritu zuen igoeran, metro batzuk ere galdu zituen, baina hurrengo koskan erreperatu

zituen. Azken kilometroek joko psikologikotik ere izan zuten apur bat: “Ea zelan nindoan galdetu zidan. Ondo esan nion, badaezpada. Berak ere ondo zihola zioen”. Bata besteaz ez ziren

fidatzen, eta azkenengo aldapa astiro, eta elkar etengabe zainduz igo zuten. Azken metroetako bihurgunera aurretik heldu zen Treceño, baina Gisasolak inertzia handiagoarekin hartu

zuen, eta esprintean berarentzat izan zen garaipena. Lorpen hori, hein handi batean, Berrizko belodromoan egindako lan gogorraren ondorio dela uste du. Dedikazio berezi bat du: “Garaipena Aito Bugallori eskaintzen diot. Niretzat Aitor eta Aintzane familikoak bezala dira”.

Gazte-gaztetatik txirrindularitza lotuta bizi da Gisasola. 13-14 urte hasi zen. Afizionatuetan hiru urte eman zituen Ripolin Bondex taldean: “Lehen urtean ondo aritu nintzen. Lasterketak irabazteko moduan”. Oscar Freire —hiru bider errepideko munduko txapelduna— eta David Seco —sei bider Espainiako txapelduna ziklo-krosean— lako txirrindulariak izan zituen taldean: “Gero, hortik bizimodua ateratzea oso gatxa zela ikusi, eta uztea erabaki nuen. Harrezkero, neure kontura eta lagunekin dihardut”.

EPR Egoin Mendibike klub berria sortu dute, aurten

Lagun arteko taldea klub federatu bihurtu dute

Gisasolak eta lagun talde batek EPR Egoin Mendibike kluba sortu dute, aurten. Urte askoan ofizialtasunik barik elkarrekin aritu ostean, klub moduan federatzea erabaki dute: “Beti

elkarrekin ibili garen lagun talde bat gara, baina, aurten arte, beste talde batzuen bidez aritzen ginen probetan. Zergatik ez dugu taldea sortzen eta geure izenagaz lehiatzen? pen-



EPR Egoin Mendibike taldea osatzen duten kideetako batzuen familia argazkia.

tsatu genuen. Eta horixe izan zen sorburua”. Horrela, aurrerantzean, euren elastikoa-gaz eta euren izen propioagaz lehiatuko dira. 21 lagun dauka, gaur egun; Durangokoak gehienak, baina Durangaldeko batzuk ere bai. Espezialitate denetarako dute atea zabalik: mountain bike, duatloia, errepideko txirrindularitza...

Zapatuan, errepideko Euskadiko Txapelketa lehiatuko dute Ereñon (Bizkaia). Master 40ko podiumean sartzea “itzela izango litzateke” Gisasolarentzat: “Errodadorea naiz. Ez dut txarto igotzen, baina horretan, badaude ni baino hobeak. Beraz, podiuma lortzea arrakasta handia izango litzateke niretzat”. Gaizka Juaristi, Ion Sarasua, Unai Gorroño eta Eñaut Gorroño taldekideak ere aurreko tokien borrokan ibili daitezkeela uste du.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Futbolari ohia eta enpresaria



Txioak geroz eta ozenago

Azkenaldian, badirudi txan-txangorriaren txioa geroz eta ozenago entzuten ari dela EH-ko bazter ezberdinetan. Kirol esparruan eta, zehazki, futbol arloan, nabarmenak izan dira kanpainaren markak.

Agian, esanguratsuena, Athletic eta Eibarren San Mameseko derbian eginiko keina izan zen: partida aurretik jokalaria txantxangorriaren kamisetekin atera ziren. Berez, soilik sinbolikoa izan zela ondoriozta daitekeen arren, sakonean mezu potente bat gordetzen du, hainbeste pertsona mugitzen duen ikuskinari zuzenean bidalitakoa. Mezu hori hitz batekin laburbil daiteke: Txioakatu!

Hau da, futbol munduari euskaraz txiokatzeko gonbita luzatzen zaio, erabileran baitu euskarak bere erronka nagusienetarikoa. Eta futbola hainbeste maite dugunok badugu, zentzu honetan, desafio handi bat, esparru honetan, gaztelan bezala euskaraz ere goza dezakegula frogatzea.

Gaur egungo belaunaldiak duten ulermen maila kontuan izanik, aipatutako helburua berez etorriko dela pentsa genezake. Ordea, gaztelaniak bereganaturik daukan esparru elebakar honetan, ugariak dira oztopoak, batzuetan baita ulermen aldetik arazorik ez duten pertsonen osatutako erakundeek jarritakoak ere.

Horretaz ohartu, eta euskara bere estrategian aintzat hartzen duten kirol elkarteak gero eta ugariagoak dira, eta eskertzekoa da: Astrabudua, Erandio, Bermeo, Zamudio, Galdakao, Umore Ona, Bizia, Uritarra, Arteaga, Sondika, Uritarra, Ugeraga...baita eskola eta ikastola asko ere. Jarraitu golak euskaraz ospatzen!

MACOBER

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

